

Junkal Guerrero Langara

Andoainen jaio zen 1968an. Musikako ikasketak Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan egin zituen, eta Goi Mailako Titulazioa lortu zuen Solfeoa, Pianoan, Klabea, Pedagogia Musikalean eta Abesbatzen Zuzendaritzan. Abesbatzen munduan bere formazioa etengabe osatuz joan da hainbat irakaslek emaniko ikastaroetan parte hartuz, hala nola, Javier Busto, Pierre Cao, Eric Ericsson, Erkki Pohjola, Carl Hogset, Gunnar Erikson, Anders Eby, Gary Graden, John Poole, Laszlo Heltay...

Abesbatzen zuzendari moduan Andoaineko bi talderekin hasi zen: Alberto Agirre abesbatza eta Xaramel haur-abesbatza.

Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako zuzendaria izan da eta bertako abesbatzarena ere bai ((1989-1999), eta 1999az geroztik Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorio Profesionaleko piano irakaslea da. Horrekin batera hainbat abesbatzatan parte hartu du: Hodeiertz, Gipuzkoako Gazte-Abesbatza eta Kanta Cantemus Korua. 1995etik 2007ra bitartean KCK abesbatzan Javier Bustoren gidaritzapean egon izanak, abesbatzaren inguruko bere munduan eragin nabarmena izan du. Horri esker Javier Bustoren, Eva Ugaldere eta bere obra batzuk estrenatzeko eta grabatzeko aukera izan du, eta ahots txurientzako erreperitorioan sakontzeko aukera aprobetxatu du.

Bi urtez Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearen abesbatza zuzendu du, eta Elkarte horren gonbidapena jaso du haur-abesbatzak zuzentzeko ikastaroa eman dezan. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak haur-abesbatzen topaketetan zuzendari gisa parte hartzera gonbidatu du. Une honetan bi abesbatzen zuzendaritza darama: Beasaingo Loinatz Abesbatza eta Donostiako Antigua-Luberri BHI ikastetxeko gurasoek eta irakasleek osatutako Luberri Abesbatza. Hainbat leihaketetan epaimahaikide izateko aukera izan du.

"Bi bihotz" izeneko bere obra 2007an Tolosako Abesbatza Leihaketan haur-abesbatzen gai behartua izan zen eta "Kalera gazteak" 2011ko edizioan.

Hauek editatu ditu:

- CM-rekin: *Ave Maria, Belatzarena, Bi bihotz, Non degu, non?, Xurian-xuri.*
- Catalunya Haur Abesbatzen Federazioarekin: *Cançó amorosa* eta *Aquí dalt de la muntayna.*
- Cantabriako Gobernuarekin Esteban Sanz Vélez-en bilduma bat: *Dos canciones cántabras.*

Hainbat abesbatzaren enkarguz obra ezberdinak idatzi ditu:

- ***Kantika Korala: Non degu, non?*** (Gabon Kantika CD-an grabatua).
- ***Landarbaso Abesbatza: Ave verum*** (2010eko Musikasten estreinatua), eta "Iturengo arotza" (2011ko Tolosako Abesbatza Leihaketan estreinatua)
- ***Ganbara Txiki Abesbatza: Errota, Etxabereak eta Kalera gazteak*** (Andoni Salameroren hitzekin).
- ***Unanue Kamara Korala: Soinuak olgetan*** (J.M^a Urteagaren hitzekin).
- ***Curso de dirección coral infantil de EHMEE: Xurian-xuri, Mutil txaleko gorri, Alleluia.***
- ***Garbiñe Abendaño sopranoa: Lau Euskal kanta.***
- ***Luberri Abesbatza: Otso beltza, Orra Mari Domingi.***